

GOBIERNO DE NAVARRA

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,
INTERIOR Y JUSTICIARELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

DERECHOS SOCIALES

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL,
ADMINISTRACIÓN LOCAL Y MEDIO
AMBIENTE

Bertizko Parke Naturalak “Tripadvisor” webgunearen bikaintasunaren ziurtagiria lortu du

Nafarroako beste 20 toki eta eskaintza turistikok ere lortua dute ziurtagiria, baita 47 ostatu eta 58 jatetxek ere

Miércoles, 05 de agosto de 2015

[Bertizko Parke Naturalak](#) lehen aldiz lortu du bidaien iritziei buruzko “[Tripadvisor](#)” webguneak emandako bikaintasunaren ziurtagiria. Nafarroako beste 20 toki eta eskaintza turistikok ere lortua dute ziurtagiria, baita 47 ostatu eta 58 jatetxek ere.

“Tripadvisor” webguneak urte osoan sareko erabiltzaileen aldeko iritzia jasotzen dituzten munduko baliabide turistikoei ematen die saria. Bertizek 5etik 4,5 puntu lortu ditu.

[Bertizko Parke Naturala](#) Oieregi (Bertizarana) herrian dago, eta 20.000 hektareako baino gehiagoko baso atlantikoa da. Iparraldean, Etxalar du eta, ekialdean, Baztan. Basoak XIV. mendean du jatorria. Azken jabeak, Pedro Cigak, Nafarroako Gobernuari dohaintzan eman zion lursaila 1949an, eta gobernuak parke natural izendatu zuen. Sarreran 100 urte baino gehiago dituen lorategi botanikoa dago, zuhaitzen eta zuhaixken 120 espezie dituena.

Ziurtagiria lortua duten gainerako 20 toki eta eskaintza turistikoetatik 9 Iruñean daude (katedrala, udaletxea, harresiak, Entzierroaren Monumenruea, Estafetako balkoiak, Yamaguchi parkea, Gaztelu plaza, taconerako Lorategiak eta hiribururko eskaintza gastronomikoa). Gainontzekoak Foru Komunitatean zehar daude: Errege Bardeak, Orreagako kolegiata, Urdazubiko Leizeak, Zugarramurdiko leizea, Irunberriko Arroila, Leyreko Monasterioa, Xabierko Gazteluko Museoa, Urederra ibaiaren iturburua, Erriberriko Jauregia, Urbasa-Andia Natur Parkea eta Iratiko Oihana.



Bertizko lorategi botanikoko jauregia.